

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO UZTAILA

Bidaia-ien sarrerak % 0,4 ugaritu dira 2014ko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan

Ostatu-gauen kopuruak % 1,9 egin du gora iazko hilabete bereko datuekiko

Eustaten datuen arabera, 2014ko uztailean 261.168 bidaia-rik hartu dute ostatu EAEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 933 gehiagok; horrenbestez, % 0,4ko gehikuntza izan da. Bidaia-ri-sarrerak % 1,1 egin dute gora Gipuzkoan eta % 1,0 Bizkaian; Araban, berriz, % 3,7 behera egin dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan 529.117 gaualdi izan dira 2014ko uztailean; horrenbestez, % 1,9ko gorakada izan da iazko uztailean izandakoekiko; 9.808 gaualdi gehiago izan dira, alegia. Gaualdiek gora egin dute Bizkaian (% 3,0) eta Gipuzkoan (% 2,0). Araban, aldiz, % 1,8 egin zuten behera.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaia-ien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Uztaila 2014

	Gaualdiak		Bidaia-ien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/07	m/m-12 (%)	2014/07	m/m-12 (%)	2014/07	2013/07	plazaka		gelaka	
							2014/07	p.p.*	2014/07	p.p.*
EUSKAL AE	529.117	1,9	261.168	0,4	2,03	2,00	59,9	2,0	68,1	1,7
Estatukoak	292.367	2,4	142.319	-0,8	2,05	1,99	-	-	-	-
Atzeritarrak	236.750	1,2	118.849	1,7	1,99	2,00	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	70.322	-1,8	36.636	-3,7	1,92	1,88	49,6	-1,2	57,8	-1,5
Estatukoak	47.312	-2,3	23.995	-1,9	1,97	1,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	23.010	-0,8	12.641	-6,9	1,82	1,71	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	51.601	-1,1	25.808	-0,4	2,00	2,01	52,9	-1,8	63,6	-2,3
BIZKAIA	237.550	3,0	121.889	1,0	1,95	1,91	58,2	3,8	67,0	3,5
Estatukoak	138.994	4,9	68.886	0,6	2,02	1,93	-	-	-	-
Atzeritarrak	98.556	0,3	53.003	1,6	1,86	1,88	-	-	-	-
Bilbao	146.781	3,3	74.317	2,0	1,98	1,95	61,6	2,8	71,4	2,4
GIPUZKOA	221.245	2,0	102.643	1,1	2,16	2,14	66,2	1,1	73,6	0,6
Estatukoak	106.061	1,5	49.438	-2,0	2,15	2,07	-	-	-	-
Atzeritarrak	115.184	2,5	53.205	4,2	2,16	2,20	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	125.924	1,4	54.649	1,8	2,30	2,31	78,3	1,2	86,1	0,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Iazko uztailaren aldean, atzerriko bidaia-ien sarrerak % 1,7 ugaritu dira, estatu barruko bidaia-ienek berriz bakandu egin dira (% 0,8 gutxiago). Araban iaz baino % 6,9 atzeritar gutxiago izan dira aurtengo uztailean, eta iaz baino % 1,9 estatuar gutxiago. Bizkaian gehiago izan dira bidaia-ri atzeritarrak (% 1,6) zein estatu barrukoak (% 0,6). Gipuzkoan % 4,2 egin du gora atzeritarren kopuruak eta % 2,0 estatu barrukoak.


Batez besteko egonaldia 2,03 egunekoa izan da, ez da ia aldatu, beraz, aurreko urtekoaren aldean (2,00 egun). 2013ko uztaileko aurtengo uztailera bitartean, batez beteko egonaldia 1,88

egunetik 1,92 egunera luzatu da Araban. 1,91 egunetik 1,95 egunera luzatu Bizkaian eta 2,14 egunetik 2,16 egunera luzatu Gipuzkoan.

Plazakako betetze-maila % 2 baino gehiago handitu da EAE osoan; hala, 2013ko uztaileko % 57,8tik % 59,9ra igaro da aurtengoan. Araban 1,2 puntu atzera egin du (% 50,8 2013an, % 49,6 2014an). Bizkaian 3,8 puntu gora egin du (% 54,4 2013an, % 58,2 2014an). Gipuzkoan ere gora egin du okupazioak, 1,1 puntu hain zuzen (% 65,1 2013an, % 66,2 2014an).

Gelen okupazio-mailari dagokionez ere hobera egin du EAEn, % 1,7 hain zuzen, eta gelen % 68,1ean kokatu da. Araban 1,5 puntu behera egin du (% 57,8), Bizkaian 3,5 puntu gora (% 67,0) eta Gipuzkoan 0,6 puntu gora (gelen % 73,6 okupatu ziren).

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Hotel-plazen okupazio-maila handiena Donostian izan da (% 78,3), Gipuzkoako kostaldean hurrena (% 69,5) eta Bilbo Metropolitarra atzetik (% 62,3).

Asteko egunaren arabera, asteburuan egon da betetze-mailarik handiena 2014ko uztailean EAEn; plazen % 70,5 bete dira, eta lanegunetan, berriz, betetze-maila % 56,1 izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan okupatutako langileak % 2,1 gutxiago izan dira aurten 2013ko uztailaren aldean.

Gasteizko jazzaldiak iraun bitartean, gelen % 65,6ko okupazio-maila izan zen Arabako hotel-establezimenduetan

2014ko Gasteizko Jazzaldiak iraun bitartean 7.372 bidaiari sartu ziren Arabako hoteletara. Uztailaren 14tik 19ra bitartean (sei gau) kontatu da sarrera-kopuru hori. Aldi horretan bertan 14.936 gaualdi egin dira Araba osoan, 2013an baino % 16,8 gehiago, aintzat hartu behar bada ere orduan egun bat laburragoa izan zela, 5 gau alegia, uztailaren 16tik 20ra arte. Bisitari-sarrerek ere gora egin zuten, % 8,4, lurralde osoan 2013ko jazzaldiarekiko. 2014an plazen % 54,5eko okupazio-maila izan da. Gasteizen 4.897 sarrera eta 10.605 gaualdi izan ziren, plazen % 56,2 eta gelen % 71,1 okupatuta. 2013aren aldean, % 7,4 egin zuten gora hiribururako sarrerek eta % 13,8 gaualdiek.

Getxoko jazzaldiak iraun bitartean, gelen % 62,7ko okupazio-maila izan zen Bizkaiko hotel-establezimenduetan

2014ko Getxoko Jazzaldiak iraun bitartean 18.584 bidaiari sartu ziren Bizkaiko hoteletara. Uztailaren 2tik 6ra bitartean (bost gau) kontatu da sarrera-kopuru hori. Aldi horretan bertan 34.483 gaualdi egin dira Bizkaia osoan, eta gelen okupazio-maila % 52,7koa izan da. Bilbo metropolitarran (Bilbon izan ezik) gelen % 61,7ko eta plazen % 54,3ko okupazioa izan zen. 2013an jazzaldia uztailaren 3tik 7ra bitartean izan zen (5 gau), eta haren aldean % 2 egin dute gora aurtan Bizkaiko sarrerek zein gaualdiek; Bilbo metropolitarraren kasuan, berriz, Bilboz beste, % 10,3 gora egin dute sarrerek eta % 8,4 gaualdiek.

BBK Livek iraun bitartean, gelen % 86ko okupazio-maila izan zen Bizkaiko hotel-establezimenduetan

2014ko BBK Livek iraun bitartean 14.854 bidaiari sartu ziren Bizkaiko hoteletara. Uztailaren 10etik 12ra bitartean (hiru gau) kontatu da sarrera-kopuru hori. Aldi horretan bertan 31.119 gaualdi egin dira Bizkaia osoan, eta gelen okupazio-maila % 78,2koa izan da. Bilbon 8.452 sarrera eta 19.096 gaualdi izan ziren, plazen % 82,3 eta gelen % 91,1 okupatuta. 2013an BBK Live uztailaren 11tik 13ra bitartean izan zen (3 gau, hain zuzen), eta haren aldean aurtan Bizkaia osoan % 2,2 sarrera gutxiago eta % 4,6 gaualdi gutxiago izan dira; haatik, plazen okupazioak eutsi egin dio eta gelenak, berriz, zertxobait gora egin du. Bilbori dagokionez, han ere behera egin dute sarrerek (% 4,5) zein gaualdiek (% 6,5).

Donostiako Jazzaldiak iraun bitartean, gelen % 77,2ko okupazio-maila izan zen Gipuzkoako hotel-establezimenduetan

2014ko Donostiako Jazzaldiak iraun bitartean 18.464 bidaiari sartu ziren Gipuzkoako hoteletara. Uztailaren 23tik 27ra bitartean (bost gau) kontatu da sarrera-kopuru hori. Aldi horretan bertan 38.605 gaualdi egin dira Gipuzkoa osoan, eta plazen okupazio-maila % 71,1ekoa izan da. Donostian 9.784 sarrera eta 21.800 gaualdi izan ziren, plazen % 83,5 eta gelen % 90,4 okupatuta. 2013an jazzaldia uztailaren 24tik 28ra bitartean izan zen (5 gau), eta haren aldean gora egin dute aurtan Gipuzkoako sarrerek (% 1,6) zein gaualdiek (% 1,8); Donostian, berriz, % 11,6 gora egin dute sarrerek eta % 5 gaualdiek.

Uztailean % 2,7 sarrera gehiago izan dira landetxeetan, eta gaualdiek ere gora egin dute, % 6,9 hain zuzen

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan eta landetxeetan 47.969 gaualdi izan ziren guztira uztailean; horrenbestez, kopuruak % 6,9 egin du gora aurreko urteko hilabete berarekin alderaturik. Lurraldeka, Araban % 24,3ko jaitsiera izan zen, Bizkaian % 24,2ko gorakada eta Gipuzkoan, azkenik, % 4,8ko gorakada.

Plazen okupazio-mailari dagokionez, % 38,4ra iritsi da aurtengo uztailean, iaz baino 4,2 puntu gehiago. Arabak, berriz, 3,6 puntuko murrizketa izan du, plazen % 14,4ko okupazio-mailarekin. Bizkaian, okupazio-maila % 39,8 izan zen; hau da, 8,8 puntu gehiago 2013ko uztailaren aldean. Gipuzkoan 4,8 puntuko gorakada izan da, eta % 48,2ko maila izan da guztira aurtengo uztailean.

Bidaiarien 15.649 sarrera izan dira aurtengo uztailean EAeko landa-establezimenduetan; iazko uztailean baino % 2,7 gehiago, hain zuzen ere. Lurraldeka, Araban sarreren kopuruak % 24,1 egin du behera, Bizkaian % 23,7 gora eta Gipuzkoan % 0,3 behera.

Atzeritik 3.371 bidaiari etorri dira; hortaz, % 15,0ko gorakada izan da duela urtebete etorritakoen aldean, eta sarrera guztien % 21,5 izan dira. Estatutik etorritako bidaiarien sarrerek, berriz, % 0,3 egin dute behera.

Bukatzeko, bidaiarien batez besteko egonaldia luzatu egin da aurtengo uztailean iazko uztailarekiko, eta 3,07 egunekoa egin da.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Uztaila 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/07	m/m-12 (%)	2014/07	m/m-12 (%)	2014/07	2013/07	2014/07	p.p.*
EUSKAL AE	47.969	6,9	15.649	2,7	3,07	2,94	38,4	4,2
ARABA/ÁLAVA	3.791	-24,3	1.628	-24,1	2,33	2,34	14,4	-3,6
BIZKAIA	15.432	24,2	4.962	23,7	3,11	3,10	39,8	8,8
GIPUZKOA	28.746	4,8	9.059	-0,3	3,17	3,02	48,2	4,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Informazio gehiago lortzeko:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari (ETHI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari (ETHI) buruzko datu-bankua